Aldaketarik egin behar izanez gero, aldaketak 153. artikuluaren arabera egin behar dira, 2017ko SPKLaren 203. eta 204. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Las modificaciones del contrato, cuando procedan, deberán formalizarse conforme a lo establecido en el artículo 153 y se regirán íntegramente por lo dispuesto en los artículos 203 y 204 de la LCSP 2017.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

SPKLaren 205. artikuluaren arabera, kontratazio-organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta banan-banan hartuta edo guztiak batera, hasierako kontratuaren prezioaren ehuneko 20tik gorakoa ez den aldaketa eragiten badute beren zenbatekoan, BEZik gabe.

Según dispone el artículo 205 de la LCSP, las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para los contratistas cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido.

Kontratistarentzat aldaketa derrigorrezkoa ez denean, kontratazio-organoak berak erabakiko du aldaketa hori egitea kontratistak aldaketa hura idatziz onartu ondoren; hala ez bada gertatzen, kontratua deuseztatu egingo da 2017ko SPKLaren 206. artikuluari jarraituz. Halako kasuetan, kontratua aldatu aurretik, proiektuaren edo baldintza teknikoen idazleari entzunaldia eman beharko zaio, hiru egunekoa baino motzagoa ez den epe batean, bidezko jotzen dituen azalpenak eman ditzan, baldin eta zerbitzu-kontratu bat dela-eta baldintza horiek kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek eginak badira.

Cuando la modificación no resulte obligatoria para el contratista, la misma solo será acordada por el órgano de contratación previa conformidad por escrito del mismo, resolviéndose el contrato, en caso contrario artículo 206 de la LCSP 2017. En estos supuestos antes de proceder a la modificación del contrato, deberá darse audiencia al redactor del proyecto o de las especificaciones técnicas, si estos se hubiesen preparado por un tercero ajeno al órgano de contratación en virtud de un contrato de servicios, para que, en un plazo no inferior a tres días, formule las consideraciones que tenga por conveniente.

2017ko SPKLaren 205. artikuluaren lehen paragrafoan jasotako baldintzak betez gero, aurreikusi gabeko aldaketa bat justifikatuta dago kasu hauetan:

Los supuestos que eventualmente podrían justificar una modificación no prevista, siempre y cuando esta cumpla todos los requisitos recogidos en el apartado primero de artículo 205 de la LCSP 2017, son los siguientes:

a) Hasieran kontratatutakoak baino zerbitzu gehiago behar direnean, legez aurreikusitako baldintzak betez gero.

a) Cuando deviniera necesario añadir servicios adicionales a los inicialmente contratados, siempre y cuando se den los requisitos legalmente previstos.

b) Kontratuaren lizitazioa egin zenean aurreikusi ezin ziren eta gerora agertutako gorabeheren ondorioz sortu bada indarrean dagoen kontratua aldatu beharra, legezko baldintzak betez gero.

b) Cuando la necesidad de modificar un contrato vigente se derive de circunstancias sobrevenidas y que fueran imprevisibles en el momento en que tuvo lugar la licitación del contrato, siempre y cuando se cumplan las condiciones legales.

Kontratua indarrean dagoela aldatu behar bada, kontratuaren aldaketa formalizatu behar da eta aldaketaren gaineko iragarkia kaleratu behar da kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, aldaketa onartu eta 5 eguneko epean.

Si se modificase el contrato durante su vigencia, se deberá formalizar la modificación del contrato y se deberá publicar en todo caso un anuncio de modificación en el perfil de contratante del órgano de contratación en el plazo de 5 días desde la aprobación de la misma.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

## 16. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratua gauzatutzat hartuko da kontratistak prestazioa erabat gauzatu duenean, kontratuan ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta.
Dena den, zerbitzua bete dela egiaztatzeko, kontratuaren helburu den zerbitzua amaitzen denetik hilabeteko epean zerbitzuari harrera egiteko ekintza formala eta positiboa egingo da.
Kontratuaren izaera dela eta, **hilabete biko (2) berme-epea ezartzen da, azken hilabateko mantentze-lanak zelan dabiltzan ikusi ahal izateko.**

## 16. RECEPCION DE LA PRESTACION Y PLAZO DE GARANTIA

El contrato se entenderá cumplido cuando el/la contratista haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de la Administración, la totalidad de la prestación.
En todo caso, su constatación, exigirá un acto formal y positivo de recepción que se efectuará en el plazo de un mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato.
Dada la naturaleza de este contrato **se prevé un plazo de garantía de dos (2) meses, a fin de comprobar el funcionamiento del mantenimiento de la última mensualidad.**

## 17. KONTRATUA EZ BETETZEAREN ONDORIOAK

Kontratistak kontratua betetzeko guztira ezarri den epearen barruan burutu behar du kontratua, eta prestazioen burutzapen partzialerako ezarritako epeak ere bete behar ditu.

Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurreko eskaera edo errekerimendua egitea.

Jasotako zigorrak eta 16. klausulan jasotako suntsitzeko ahalmenak gorabehera, kontratua suntsitu eta bermea galdu arren, Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du eragindako kalte-galerengatik, harik eta bermearekin estali ez den zenbatekoa estali arte.

Langileen soldatak edo Gizarte Segurantza ez ordaintzeagatik Udalari kalterik eragitekotan, esleipendunak eragindako edozelako kaltea ordaindu beharko dio Udalari.

## 17. CONSECUENCIAS DEL INCUMPLIMIENTO

El/La contratista está obligado/a a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo, así como los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva.

La constitución en mora no precisa intimación previa por parte de la Administración.

Sin perjuicio de las penalidades recogidas, y de las facultades resolutorias de la cláusula 18.ª, la resolución del contrato con pérdida de la garantía no excluye la indemnización a que la Administración pueda tener derecho por los daños y perjuicios ocasionados en lo que excedan del importe de la garantía incautada.

El incumplimiento del deber de pago de los salarios de las trabajadoras o su Seguridad Social conllevará el deber de indemnizar al Ayuntamiento de cualquier perjuicio que tales incumplimientos pudieran conllevar.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

## 18. KONTRATUA SUNTSITZEKO ARRAZOIAK ETA ONDORIOAK

Administrazio kontratuetarako aurreikusitako arrazoiengatik suntsituko da kontratua, 2017ko SPKLaren 211. artikuluaren arabera eta testu horren 313. artikuluan zerbitzuetarako kontraturako ezarritakoetarako.

211. artikuluko f) eta h) paragrafoetan ezarritakoa aintzat hartuta, kontratuaren oinarrizko betebeharrak ez betetzea kontratua suntsitzea ekarriko du. Hona hemen arrazoiak:

a) Isilpeko datuak edo aurrekariak isilean ez gordetzea.
b) Azpikontratazio arloko mugak ez betetzea. Administrazioak kontratua suntsitu dezake plegu honetan azpikontrazio arloan ezarriko betebeharrak eta mugak ez betetzeagatik.

c) Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenei trabak jartzeagatik. Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoia da kontratistak ez laguntzea edo trabak jartzea Administrazioaren zuzendaritza-eta ikuskapen-ahalmenak gauzatzeko orduan, aurrez idatziz ohartaraziz gero.

d) Pleguan ezarritako bitarteko pertsonal edo materialak ez atxikitzea.
e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateko betebeharrak ez betetzea.

f) Pleguan zehaztutako baldintza bereziak ez betetzea.

Alde biek erabakiz gero kontratua suntsitzekotan, alde bien eskubideak hitzartutakora egokituko dira.

## 18. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO Y SUS EFECTOS

El contrato se resolverá por las causas previstas para los contratos administrativos en el artículo 211 de la LCSP 2017 y por las específicamente indicadas para el contrato de servicios en el artículo 313 del citado texto.

Al amparo de lo establecido en los apartados f) y h) del artículo 211, se consideran causa de resolución por incumplimiento de obligaciones contractuales esenciales las siguientes:

a) No guardar sigilo respecto a los datos o antecedentes de carácter confidencial.
b) Incumplimiento de las limitaciones establecidas en materia de subcontratación. La Administración podrá resolver el contrato por incumplimiento del mismo cuando se incumplan las obligaciones y limitaciones que el presente pliego impone al adjudicatario en materia de subcontratación.
c) Obstrucción a las facultades de dirección e inspección de la administración. Se considerará igualmente justa causa de resolución del contrato por incumplimiento del contratista la obstrucción o falta de colaboración para hacer efectivas las facultades de dirección e inspección reconocidas a la Administración en el presente pliego, previamente advertida por escrito.
d) No adscribir los medios personales o materiales exigidos en el presente pliego.
e) Incumplir las obligaciones de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
f) Incumplir las condiciones especiales de ejecución definidas en este pliego.

En el supuesto de resolución de mutuo acuerdo, los derechos de las partes se acomodarán a lo válidamente estipulado por ellas.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

## 19. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

### a) Interpretazioa

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

### b) Uko egitea eta atzera egitea

Kontratazio organoak erabakitzen badu deialdia egin eta gero kontratu bati uko egitea edo esleipenerako prozedurari berriro ekitea, SPKLaren 336. artikuluan aurreikusitako txostena egin ondoren, jakinarazi egin behar die hautagaiei edo lizitatzaileei.

Kontratua hitzartzeari uko egitea edo prozeduran atzera egitea kontratazio organoak baino ezin du erabaki, esleipena baino lehen. Bata gertatu zein bestea gertatu, konpentsatu egin behar dira hautagai edo lizitatzaileak ordura arte sortutako gastuengatik, Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorrekin bat etorriz.

Ez dago beste lizitaziorik sustatzerik, atzera egiteko erabili ziren arrazoiak bere horretan dauden bitartean. Prozeduran atzera egitea, ordea, ez da arrazoia lizitazio prozedurari ekiteko berehala.

## 19. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN

### a) Interpretación

Corresponden al Órgano de contratación de este Ayuntamiento las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de está, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

### b) Renuncia y desistimiento

En el caso en que el órgano de contratación renuncie a celebrar un contrato para el que haya efectuado la correspondiente convocatoria, o decida reiniciar el procedimiento para su adjudicación, previa emisión del informe previsto en el artículo 336 de la LCSP, lo notificará a los candidatos o licitadores.

La renuncia a la celebración del contrato o el desistimiento del procedimiento sólo podrán acordarse por el órgano de contratación antes de la adjudicación. En ambos casos se compensará a los candidatos o licitadores por los gastos en que hubiesen incurrido de acuerdo con los principios generales que rigen la responsabilidad de la Administración.

No podrá promoverse una nueva licitación en tanto subsistan las razones alegadas para fundamentar la renuncia. En cambio, el desistimiento del procedimiento no impedirá la iniciación inmediata de un nuevo procedimiento de licitación.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

## 20. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

20.1 ESKUBIDEAK

- Esleipendunak taberna ustiatzeko eskubidea izango du, eta ezin izango da azpikontratatu.

20.2 BETEBEHARRAK

Esleipendunak baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian xedatzen den moduan eman beharko du zerbitzua. Baldintza-agiri horretan, kontratuak esleipendunarekiko dituen betebehar espezifikoak jasotzen dira. Horregatik, hemen jasotako betebeharrak alde batera utzi gabe, haien osagarri edo errefortzu gisa, honako hauek adierazten dira:

- Esleipendunak ezingo du lokalean inolako obrarik egin aldez aurretik udalaren baimenik izan gabe, eta ezingo du musika-aparaturik edo -ekipamendurik instalatu.

- Esleipendunak erabilera eta kontserbazio egoera onean mantendu beharko ditu emandako lokalak, eta kontratua amaitzen denean, ez da onartuko itundutako ondasunak ondo erabiltzeagatik ohikoak ez diren balio-galerarik.

- Esleipendunak beti eduki beharko ditu tabernako instalazio guztiak behar bezala funtzionatzeko eta kontserbatzeko moduan.

- Esleipendunak zorrotz bete beharko ditu zerga-, lan- eta osasun-legerian aplikatzekoak diren arauak, eta nahitaez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak. Udalak ez du erantzukizunik izango ez-betetze horrengatik.
- Esleipendunaren kontura izango dira jarduera honen ondoriozko kontribuzio, zerga edo tasa guztiak.

- Esleipendunak aseguru-poliza bat sinatu beharko du, lokalaren, instalazioen eta zerbitzuen baldintza objektiboen ondorioz eta

## 20. DERECHOS Y DEBERES DEL ADJUDICATARIO

20.1 DERECHOS

- El adjudicatario tendrá derecho a la explotación del Bar no cabiendo la subcontratación del mismo.

20.2 DEBERES

El adjudicatario deberá prestar el servicio del modo dispuesto en el presente Pliego y en el pliego de prescripciones técnicas, en el que se recogen las obligaciones específicas del contrato respecto al adjudicatario o la adjudicataria.

Por ello, sin perjuicio de las obligaciones ahí recogidas, como complemento o refuerzo de las mismas, se señalan las siguientes:

- El adjudicatario o la adjudicataria no podrá realizar obras de ninguna clase en el local, sin contar previamente con autorización municipal, ni podrá proceder a la instalación de aparato ó equipo musical.

- El adjudicatario o la adjudicataria vendrá obligado a mantener en buen estado de uso y conservación, los locales concedidos, no admitiéndose a la expiración del contrato depreciaciones distintas a las normales procedentes de una buena utilización de los bienes concertados.

- El adjudicatario o la adjudicataria deberá mantener en todo momento, en debidas condiciones de funcionamiento y conservación todas las instalaciones del Bar.

- El adjudicatario o la adjudicataria deberá observar rigurosamente las normas aplicables de la legislación fiscal, laboral y sanitaria, y estará obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de Seguridad e Higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

- Serán de cuenta del adjudicatario o la adjudicataria todas las contribuciones, impuestos o tasas derivadas del ejercicio de esta actividad.

- El adjudicatario o la adjudicataria deberá suscribir póliza de seguro que cubra la responsabilidad civil por daños a los concurrentes como consecuencia de



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

bere zerbitzura dauden langileen jardueraren ondorioz bertaratutakoei eragindako kalteen erantzukizun zibila estaltzeko (300.000 euro, gutxienez).
- Kontratuaren esleipendunak, hartutako betebeharrak beteko direla bermatzeko, behin betiko bermea eratu beharko du, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

- Esleipendunak erosi beharko ditu edariak eta elikagaiak oro har, eta Udalak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunaren eta hornitzaileen arteko merkataritza-harremanetan.
- Esleipendunak Udalari jakinarazi beharko dio instalazioetan irregulartasunik badago edo instalazio horiek behar bezala erabiltzea eragozten duen bestelako zailtasunik badago, Udalak konpon edo ordezka ditzan, bere kontura badira.
- Zuzenean taberna- eta sukalde-zerbitzura bideratutako instalazioak eta tresnak garbitzea.
- Barrari eta sukaldeari ez dagozkien lokalak garbitzea.
- Lizitatzaileak egunero garbitu beharko ditu bainuak. Establezimendua itxita badago asteko atsedenagatik, jaiagatik edo beste edozein inguruabarrengatik, bainugelak garbi geratu beharko dira aurreko egunean, bainugela horiek udal-ludotekari zerbitzua ematen baitiote.
- Baldintza teknikoen pleguan jasotako gainerako betebeharrak.

las condiciones objetivas del local, sus instalaciones y servicios, así como de la actividad del personal a su servicio (300.000 euros de cuantía mínima a asegurar).

- El adjudicatario o la adjudicataria del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas está obligado a constituir una garantía definitiva en los términos dispuestos en este pliego.

- Será de cuenta del adjudicatario o la adjudicataria la adquisición de las bebidas y alimentos en general, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad alguna en las relaciones comerciales entre el adjudicatario y los suministradores.

- El adjudicatario o la adjudicataria deberá poner en conocimiento del Ayuntamiento cualquier anomalía en las instalaciones u otras dificultades que impidan el correcto uso de las mismas, para que el Ayuntamiento proceda a su reparación o sustitución, si fueren de su cargo.

- Limpieza de las instalaciones y enseres directamente destinados al servicio de bar y cocina.

- Limpieza los locales ajenos a la barra y cocina.

- El licitador deberá proceder a la limpieza de los baños diariamente. En caso de que el establecimiento permanezca cerrado por descanso semanal, fiesta o cualquier otra circunstancia, los baños deberán quedar limpios el día anterior, dado que los mismos baños dan servicio a la ludoteca municipal, tal y como figura en el PPT.

- Las demás obligaciones que se recogen en el pliego de prescripciones técnicas.

## II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

### 21. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA ETA MODUA

A.- PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua, eta izapide laburrak erabiliz, beti ere, 2017ko SPKLaren 131. artikuluan eta 156-158 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eskaintzarik onena hautatzeko zehaztu diren irizpideak ezarrita (2017ko SPKLaren 145. eta

## II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR

### 21. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACION

A.- PROCEDIMIENTO

El contrato se adjudicará mediante procedimiento abierto, de acuerdo con lo establecido en los artículos 131 y 156 a158 de la LCSP 2017, de conformidad con la aplicación de los criterios que se detallan para la determinación de la mejor oferta y de acuerdo con los artículos 145 y 146 de



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

146. artikuluak). Irizpide horiek pleguaren 22. klausulan datoz zehaztuta.

la LCSP 2017, criterios que figuran en la cláusula 22.ª del presente pliego.

B- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

B.- PERFIL DE CONTRATANTE

Kontratazio organoak internet bidez zabalduko du kontratatzailearen profila. Kontratatzaile profilerako sarbidea erakundearen web-orrian dago zehaztuta, baita EAEko Kontratazio Plataforman eta plegu honetan ere.

El órgano de contratación difundirá a través de internet su perfil de contratante. La forma de acceso al perfil de contratante se especifica en la página Web institucional, en la Plataforma de Contratación de la CAPV, y en este Pliego

C.- LIZITAZIOARAKO DEIALDIA

C.- CONVOCATORIA DE LICITACIÓN

2017ko SPKLaren 135. artikuluan ezarritako moduan.

Se llevará a cabo en la forma prevista en el artículo 135 de la LCSP 2017.

D.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

D.- APTITUD PARA CONTRATAR

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko eta profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 74. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 24. baldintzan ezarritakoak izango dira. Era berean, 2017ko SPKLaren 70. artikuluan datozen bateragarritasun-baldintza bereziak bete behar dira.

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 74 de la Ley de Contratos del Sector Público. La solvencia se acreditará y evaluará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 24.ª.
De igual modo deberán cumplirse las condiciones especiales de compatibilidad señaladas en el artículo 70 de la LCSP 2017.

Gainera, beren kabuz edo baimendutako ordezkari baten bitartez egin dezakete (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kide bat aritzen bada, horretarako ahalmena duela frogatu behar du agiri bidez. Batera zein bestera, ordezkariari ere lehen aipatutako kontratatzeko debeku horiek ezarri ahal zaizkio.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

Enpresariek kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

Los empresarios o las empresarias deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación objeto del presente contrato.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

Kontratatzeko gaitasuna dute Europako Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainiarrek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Akordioaren Estatu sinatzaileek, eurek dauden Estatuko legediarekin bat etorriz, eskaini beharrekoa eskaintzeko gaituta badaude.
Euren estatuko legegiak baimen berezia edo erakunde bateko kide izatea eskatzen badu zerbitzua eskaini ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.

Tendrán capacidad para contratar las empresas no españolas de Estados miembros de la Unión Europea o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo que, con arreglo a la legislación del Estado en que estén establecidas, se encuentren habilitadas para realizar la prestación de que se trate. Cuando la legislación del Estado en que se encuentren establecidas exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito.

Jarduteko gaitasunik, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala ez duten pertsonei esleituz gero kontratuak; sailkapena eskatzen denean, sailkapenik gabeko enpresei esleituz gero kontratuak; edo kontratatzeko debekuren bat dutenei esleituz gero, esleipena deusez izango da, 2017ko SPKLaren 39.2.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

La adjudicación de contratos a favor de personas que carezcan de la capacidad de obrar, de la solvencia económica, financiera, técnica o profesional; de la habilitación empresarial o profesional cuando sea exigible; de la clasificación, cuando esta proceda o que estén incursas en prohibición de contratar serán nulas en los términos del artículo 39.2.a) de la LCSP 2017.

## 22. BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik hasita eta atxikitzen zaien haztapen-mailaz, honakoak dira:

**AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATU BEHARREKOAK: 20 puntu**

**B1.- ZERBITZUA EMATEKO PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZAK, KOSTU GEHIGARRIRIK GABE: 10 PUNTU.**

Arreta berezia eskainiko zaie bezeroarentzako arretari buruz proposatutako hobekuntzei (Berangoko ostalaritza-lokalen batez besteko prezioekiko prezioak murriztea kolektibo behartsuenentzat – erretiratuak, langabeak... – , aldizkako jarduerak...), zerbitzua emango duten langileek euskara jakitea eta hura sustatzeko modua, lokala kudeatzeko modua.

## 22. CRITERIOS DE VALORACION

Los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes:

**CRITERIOS NO AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES, O EVALUABLES MEDIANTE JUICIO DE VALOR: 20 puntos**

**B1.- MEJORAS PROPUESTAS EN LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO, SIN COSTE ADICIONAL: 10 PUNTOS**

Se tendrá especial atención a las mejoras propuestas que se refieran a la atención al cliente o la clienta (reducción de precios respecto a los precios medios de los locales de hostelería de Berango para colectivos desfavorecidos -personas jubiladas, personas desempleadas…-, actividades periódicas,…), conocimiento de Euskera por el personal que vaya a prestar el



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

servicio y forma de fomento del mismo, forma de gestión del local.

**B2.- ZERBITZUA EMATEKO BALIABIDE MATERIALEN HORNIDURA HOBEA: 10 PUNTU**

Ustiategiaz gain, altzariak eta makinak edo instalazio gehigarriak jartzea baloratuko da, baldin eta legez instalatu ahal badira, eta altzariek edo makinek zerbitzurako hobekuntzak badakartzate edo entregatutako altzariekin eta makinekin jada aurreikusitakoez gain zerbitzu gehigarriak ematea ahalbidetzen badute.

**B2.- MEJOR DOTACIÓN DE MEDIOS MATERIALES DESTINADOS A LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO: 10 PUNTOS**

Se valorará aportar muebles y maquinaria, o instalaciones adicionales a la explotación, en caso de ser legalmente posible su instalación, y siempre que los muebles o máquinas supongan mejoras para el servicio o permitan prestar servicios adicionales a los ya previstos con el mobiliario y maquinaria entregados.

**AUTOMATIKOKI BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIORIK GABE BALORATU BEHARREKOAK: 80 puntu**

**1) ESKAINTZA EKONOMIKOA: 50 puntura arte.**

Aurkeztutako eskaintzen zenbatekoa baloratzeko modua: formularen bitartez izango da.

$$\frac{50 \times \text{Baloratu beharreko eskaintzaren bajaren \%}}{\text{Eskaintzarik merkeenaren bajaren \%}}$$

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikuluan ezarritakoarekin bat, Kontratazio-mahaiak enpresak baten proposamena ezin litekeela bete balioztatu ahal izango du, baldintza tekniko beretan, eskaintza neurrigabetzat edo anormaltzat jotzen bada, Herri-administrazioetako Kontratuen Legearen gaineko Erregelamendu Orokorra onartzeko den urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuko 85. artikuluan ezarritako irizpide objektiboak erabiliz.

Eskaintzak neurriz gainekotzat edo anormaltzat joko dira aurkeztutako eskaintzen batez bestekoaren baino %25 merkeagoak badira; eskaintza bera ere sartuko da kalkulu horretan, uste baita horrelako merkatzeak langileen eskubideen kalterako baino ez direla.

**CRITERIOS AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES, O EVALUABLES SIN NECESIDAD DE JUICIO DE VALOR: 80 puntos**

**1) OFERTA ECONÓMICA: Hasta 50 puntos**

Las ofertas recibirán los puntos resultantes de la siguiente fórmula:

$$\frac{50 \times \text{\% de baja de la oferta a valorar}}{\text{\% de baja de la oferta más económica}}$$

La Mesa de Contratación de acuerdo con el artículo 149 de la Ley de Contratos del Sector Público, podrá apreciar que la proposición de una empresa no podrá ser cumplida cuando, en igualdad de condiciones técnicas, cuando determine que su oferta económica sea considerada anormal o desproporcionada, en aplicación de los criterios objetivos establecidos en el artículo 85 del R.D. 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Se considera una oferta anormal o desproporcionada aquella que oferte un precio un 25% inferior a la media de las ofertas presentadas, incluyendo para el citado cálculo la propia oferta objeto de valoración, ya que se interpreta que una baja tal únicamente puede ir en



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

Inola ere ezin izango da justifikatu prezioa jaistea pleguan jasotzen diren betebeharrak ez betetzen, edo, zeharka, betebehar horiek ez betetzea suposatzen duten jarduerekin.

**2) LANBIDE-ESPERIENTZIA: 15 puntura arte.**

Lizitatzaileak (fisikoa edo juridikoa) ostalaritzan duen esperientzia baloratuko da, taula honen arabera:

| | |
|---|---|
| 3 urte eta egun batetik 6 urtera | 5 puntu |
| 6 urte eta egun batetik 10 urtera bitarte | 10 puntu |
| 10 urte baino gehiago | 15 puntu |

Esperientzia hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, besteren konturako langile gisa esperientzia duten pertsonen kasuan; langile autonomo gisa esperientzia duten pertsonen kasuan, berriz, ziurtagiri horrekin batera EJZn alta emanda daudela egiaztatu beharko da; bestela, eskrituren edo erregistro-ziurtagirien kopiak eta EJZn alta emanda daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, azken ekitaldietako urteko kontuen ziurtagiriarekin batera, pertsona juridikoen kasuan. Dokumentazio horrek baloratutako esperientzia egiaztatu beharko du. Apartatu hau ez da baloratu ahal izango esperientzia izanda ere udalerri honetan edo beste batzuetan garatutako beste zerbitzu batzuen irizpidearen arabera negatiboa edo kaltegarria den lizitatzaile edo lizitatzaileen kasuan, eta kontratazio-mahaiak horri buruzko informazioa eskatu ahal izango du.

**3) TERRAZA: 10 PUNTU**

Terrazan altzariak eta tresnak jartzen dituztenei puntuak emango zaizkie.

detrimento de los derechos de los trabajadores y de las trabajadoras.

De ningún modo se podrá justificar la baja mediante la infracción de las obligaciones contenidas en el pliego, o mediante operaciones que, indirectamente, conlleven infringir tales obligaciones

**2) EXPERIENCIA PROFESIONAL: Hasta 15 PUNTOS**

Se valorará la experiencia de la persona (física o jurídica) licitadora en la hostelería, según la siguiente tabla:

| | |
|---|---|
| De 3 años y un día a 6 años | 5 puntos |
| De 6 años y un día a 10 años | 10 puntos |
| Más de 10 años | 15 puntos |

Esta experiencia se acreditará mediante Certificado de Vida Laboral de la Seguridad Social que lo acredite, en el caso de personas con experiencia como trabajadoras por cuenta ajena; o mediante dicho certificado acompañado del Alta en el IAE en el caso de personas con experiencia como trabajadoras autónomas; o mediante copias de escrituras o certificados registrales y certificado de alta en el IAE, acompañado de certificado las cuentas anuales de los últimos ejercicios en el caso de personas jurídicas.
Dicha documentación deberá acreditar la experiencia valorada.
Este apartado podrá no valorarse en el caso de licitadores o licitadoras que, aun contando con la experiencia, sea negativa o perjudicial según el criterio de otros servicios desarrollados en este u otros municipios, pudiendo solicitar la mesa de contratación información al respecto.

**3) TERRAZA: 10 PUNTOS**

Se otorgará puntos a quien aporte mobiliario y enseres de terraza.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

**4) ORDUTEGIA HOBETZEA: 5 PUNTU**.

Preskripzio Teknikoen Agirian eskatutako ordutegia zabaltzea eta hobetzea eskaintzen duenari puntuak emango zaizkio, honako hauen artean:
1. Irekitzeko ordutegia zabaltzea, lokala irekitzeko ordua 10: 00ak baino lehen, horixe izango baita gutxieneko ordutegia, egun guztietan, abenduaren 24an eta 25ean eta abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean izan ezik:
9:00etan irekitzea..... 5 puntu

2. Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan irekiera-ordua ordutegi jarraituan irekitzea itxiera-orduan (baldintza-agirian eskatutakoa edo eskainitakoa, hobekuntza eskaintzen bada), eguerdian itxi gabe, abenduaren 24an eta 25ean eta abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean izan ezik. Horrela, konpromisoa aurkezten duenari 5 puntu emango zaizkio automatikoki.

**4) MEJORA EN EL HORARIO: 5 PUNTOS.**

Se otorgarán puntos a quien oferte ampliar y mejorar el horario requerido en el Pliego de Prescripciones Técnicas, entre las siguientes:

1. Ampliación del horario de apertura, adelantando la hora de apertura del local, respecto a las 10:00 horas, que sería el horario de apertura mínimo, todos los días excepto los días 24 y 25 de diciembre y 31 de diciembre y 1 de enero:
Abrir a las 9:00……...5 puntos

2. Apertura en horario, ininterrumpido, de hora de apertura a hora de cierre (la requerida por pliego o la ofertada, si se ofertase mejora) en sábados, domingos y festivos, no cerrando al mediodía, excepto los días 24 y 25 de diciembre y 31 de diciembre y 1 de enero, adjudicando 5 puntos, automáticamente, a quien presente compromiso en este sentido.

**BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK**

Ezarritako balorazio-irizpide guztiak haztatu ondoren bi eskaintza edo gehiagori emandako puntuazioan berdinketa gertatzen bada, honako irizpide hauek erabiliko dira berdintasun hori ebazteko:
a) Enpresa bakoitzeko plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena. Berdinketa gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena lehenetsiko da, edo plantillan inklusioan dauden langileen kopuru handiena.
b) Aldi baterako kontratuen ehuneko txikiagoa enpresa bakoitzeko plantillan.
c) Enpresa bakoitzeko plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiagoa egotea.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Hauxe izango da berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko atal honetan aipatzen den dokumentazioa: lizitatzaileek aurkeztutakoa berdinketa gertatzen den unean, eta ez aldez aurretik.

**CRITERIOS PARA DESEMPATE**

Cuando tras efectuar la ponderación de todos los criterios de valoración establecidos se produzca un empate en la puntuación otorgada a dos o más ofertas, se utilizarán los siguientes criterios para resolver dicha igualdad:
a) Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.
b) Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.
c) Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.
d) El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.
La documentación acreditativa de los criterios de desempate a que se refiere el presente apartado será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

## 23. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

A.- Kontratazio espedientea

Kontratazio honen espedientea kontratatzailearen profilean egongo da ikusgai, prozesua amaitu arte, beti ere, SPKLaren 116. artikuluarekin bat etorriz.

Era berean, udal-bulegoetan aztertu daiteke, 9:00etatik 14:00ak arte, eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.

B.- Aurkezteko epea

14:30 arte eta **15 EGUN NATURALEN** barruan, kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

SPKLaren 136. artikuluarekin bat, eskaintzak formatu elektronikoan aurkeztu behar dira Kontratazio Publikoa Euskadin platafoman.

C.- Aurkezteko modua

eskaintzak formatu elektronikoan aurkeztu behar dira Kontratazio Publikoa Euskadin platafomak eskatzen duen bezala. Proposamenak beste edozein bidetatik aurkeztea lizitaziotik kanpo uzteko arrazoi izan daiteke.

Lizitatzaileek beren eskaintza elektronikoak aurkeztuko dituzte Kontratazio Publikoa Euskadi Plataformaren lizitazio elektronikoko aplikazioaren bidez, helbide honetan: www.contratacion.euskadi.eus; lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko euskarri-zerbitzu bat du (Tel.: 945016298).

Aurkeztutako artxiboak '*.pdf' formatoan bidali beharko dira, eta behar bezala digitalki

## 23. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

A.- Expediente de contratación

El expediente de esta contratación, según dispone el artículo 116 de la LCSP, estará expuesto en el perfil de contratante hasta la conclusión del mismo.

Asimismo, podrá ser examinado en la oficina de esta Administración, de 09:00 a 14:00 horas, hasta el último día de presentación de ofertas.

B.- Plazo de presentación

Hasta las 14:30 horas y dentro de los **15 DIAS NATURALES** contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil de contratante

Cuando el último día del plazo sea sábado, domingo o festivo, se entenderá prorrogado al siguiente primer día laborable.

Tal y como se recoge en el artículo 136 de la LCSP, las ofertas se presentarán formato electrónico a través de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi.

C.- Forma de presentación

Las proposiciones se presentarán utilizando medios electrónicos. La presentación de proposiciones por cualquier otra vía, podrá ser causa de exclusión de la licitación.

Las empresas licitadoras presentarán sus ofertas electrónicas a través de la aplicación de licitación electrónica de la Plataforma Kontratazio Publikoa Euskadi-Contratación Pública del Sector Público, en la dirección: www.contratacion.euskadi.eus, que cuenta con un servicio de soporte para resolver dudas o incidencias sobre licitación electrónica (Tfno. 945016298).

Los archivos remitidos deberán remitirse en formato "*.pdf" e ir debidamente firmados



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

sinaturik joan beharko dira, berauen izenburuak bere edukia laburbilduko duelarik.

digitalmente, y su título deberá concretar el contenido de manera resumida.

Pleguetara eta lizitazioa arautzen duen dokumentaziora egokitu behar dira interesdunek proposamenak. Proposamena aurkezteak berekin dakar klausula edo baldintza guztiak onartzea, salbuespen barik. Era berean, aurkeztean baimena ematen zaio mahaiari eta kontratazio organoari Lizitatzaileen eta Sektore Publikoko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean zein Europako Batasuneko kide den estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea.

Proposamenak isilpekoak izango dira eta jarri beharreko baliabideak jarri behar dira isilpekoak izan daitezen, harik eta proposamenak ireki arte.

Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu dezake, ez bada 2017ko SPKLaren 142. artikuluan jasotakoa gertatzen, aldaerak onartzea aurreikusita dagoen kasuetan. Eta 143. artikuluan (enkante elektronikoa). UTE (aldi baterako enpresa-elkartea) gisa ere ez dago beste batzuekin batera proposamenik aurkezterik banan aurkeztu badira. Era berean, ez dago UTE batean baino gehiagotan parte hartzerik. Aurrekoa hautsiz gero, ez da onartuko era horretako proposamenik.

Cada licitador o licitadora no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de lo previsto en los artículos 142 de la LCSP 2017, para los casos en que se haya previsto la admisibilidad de variantes, y en el 143, cuando se celebre una subasta electrónica. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en UTE con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una UTE. La contravención de lo anterior dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

## 24. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA ETA EDUKIA

## 24. FORMA Y CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES

Lizitatzaileek proposamen guztietan HIRU artxibo elektronikoak egon behar dira, dokumentazio honekin:

Todas las proposiciones de los licitadores deberán estar integradas por TRES archivos electrónicos, con la siguiente documentación:

**A ARTXIBO ELECTRONIKOA:** ADMINISTRAZIOKO AGIRI OROKORRAK

**ARCHIVO ELECTRÓNICO A**: DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA GENERAL

Karpeta horretan izaera orokorreko informazioa edo administraziokoa egongo da,

Esta carpeta contendrá la información de carácter general o administrativo, mediante la



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

eta horrekin egiaztatu behar da 2017ko SPKLaren 140. artikuluan datorrena betetzen dela.

Lizitatzaile guztiek EKAB eta ADIERAZPEN OSAGARRIA aurkeztuko dituzte (I ERANSKINA)

**A1.- EKAB.-** Erantzukizunpeko adierazpena, kontratazioaren gaineko Europako dokumentu bakarraren eredura egokituko dena **(EKAB)**, 141. artikuluarekin bat etorriz. Digitalki sinatu behar da eta behar den moduan identifikatuta.

Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua helbide elektroniko honetan dago:

https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

Hala ere, badago eredu bat lizitatzailentzako plataforman argitaratu dauden fitxeroen zerrendan.

**A2.- Erantzukizunpeko adirezpena gehigarria** (Agiri honetako **I. ERANSKINaren ereduaren arabera**), puntu hauek jasoko dituena:

1. Sozietatea/entitatea balio osoz eratuta dagoela eta bere helburu sozialaren arabera lizitaziora aurkez daitekeela, baita adierazpenaren sinatzaileak proposamenaren eta haren aurkezpena egiteko ordezkaritza egokia duela ere.

2. Kaudimen ekonomikoko, finantzarioko eta tekniko edo profesionaleko baldintzak dituela, pleguan ezarritako baldintzekin eta kontratatzeko Europako dokumentu bakarraren inprimakiarekin bat etorriz.

3. Kontratatzeko debekurik ez duela, ez berak bakarrik, ezta SPKLaren 71.3 artikulua ezartzearen ondorioz sortutako egoeran.

que se acreditará el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 140 de la LCSP 2017.

Todos los licitadores presentarán el DEUC y la DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA (ANEXO I):

**A1.- DEUC.-** Declaración responsable que se ajustará al formulario de documento europeo único de contratación (DEUC) de conformidad con lo indicado en el artículo 141, que deberá estar firmada digitalmente y con la correspondiente identificación.

El modelo de declaración responsable podrá ser obtenido a través de la siguiente dirección electrónica:

https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

Asimismo, se adjunta modelo en el listado de ficheros disponibles para los licitadores en la Plataforma.

**A2.- Declaración responsable complementaria** (**Conforme al modelo de ANEXO I** de los presentes pliegos), que recoja los siguientes extremos:

1. Que la sociedad/entidad está válidamente constituida y que conforme a su objeto social puede presentarse a la licitación, así como que el firmante de la declaración ostenta la debida representación para la presentación de la proposición y de aquella.

2. Que cumple los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional exigidos, en las condiciones que establece este pliego, de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación.

3. Que no está incursa en prohibición de contratar por sí misma ni por extensión como consecuencia de la aplicación del artículo 71.3 de la LCSP.



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

4. Posta elektronikoa, jakinarazpenetarako, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, “gaitu” beharrekoa.

4. La designación de una dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones, que deberá ser «habilitada» de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP.

5. Enpresa lizitatzailearen langileen ezarri beharreko hitzarmen kolektiboa (buletina eta argitalpen-data).

5. Indicación del convenio colectivo de aplicación al personal de la empresa licitadora, boletín y fecha de publicación del mismo.

6. Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi eta auzitegien mende ipiniko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

6. Para las empresas extranjeras, declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.

7. Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda egotearen gaineko adierazpena edo EAEko Erregistro Ofizialean

7. Declaración de estar inscrito o inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en el Registro Oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

B.- Kasu bereziak:

B.- Casos especiales:

a) Atzerriko enpresariak

a) Empresarios extranjeros

Nazioarteko akordioetatik Espainiari datozkion betebeharrak derrigor bete behar diren arren, Europako Batasunekoak ez diren Estatuetako edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko Akordioaren Estatu sinatzaileetako pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu egin behar dute txosten baten bitartez atzerriko enpresa horren Estatuak onartu egiten dituela Espainiako enpresak euren herrialdeko sektore publikoko kontratazioan parte hartzeko, 3. artikuluan jasotakoen haritik, Espainian egiten den antzera. Espainiak atzerrian daukan Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egin behar du, eta bestela ekarri behar duen dokumentazioari erantsi behar zaio.

Sin perjuicio de la aplicación de las obligaciones de España derivadas de acuerdos internacionales, las personas físicas o jurídicas de Estados no pertenecientes a la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo deberán justificar mediante informe que el Estado de procedencia de la empresa extranjera admite a su vez la participación de empresas españolas en la contratación con los entes del sector público asimilables a los enumerados en el artículo 3, en forma sustancialmente análoga. Dicho informe será elaborado por la correspondiente Oficina Económica y Comercial de España en el exterior y se acompañará a la documentación que se presente.

Era berean, EBetik kanpoko enpresa esleipendunari eskatuko zaio Espainian bulegoa zabaltzea, hemen egin beharrekoak egiteko ahaldunak edo ordezkariak izendatzea eta Merkataritza Erregistroan

Asimismo, se exigirá a la empresa no comunitaria que resulte adjudicataria que abra una sucursal en el estado español, con designación de apoderados o representantes para sus operaciones, y que estén inscritas en el



I.F.Z./N.I.F. P4802000B Elexalde, 3 48640 – Berango. Tfnoa. 94.668.00.08 Faxa: 94.668.09.55

izena emanda egotea. Beraz, eskaintza aurkezteak berekin dakar betekizun hori onartzea.

b) ABEEak

Lizitaioari begira, ABEEan batuta aurkeztu nahi duten enpresariek adierazi egin behar dute nork osatzen duen aldi baterako enpresa hori (izenak eta bestelako xehetasunak), bakoitzak duen partaidetza eta ABEEaren ordezkari edo ahalorde bakarraren izena, kontratua eurei esleituz gero.

ABEE hori honela badago osatuta: estatuko enpresariak, Europako Batasunekoak ez diren Estatuetakoak eta, atzerritarrak izan arren, Europako Batasunekoak diren estatuetako enpresak edo Europako Ekonomia Eremuaren gaineko Akordioaren Estatu sinatzaileetakoak; lehendabiziko biek euren sailkapena egiaztatu behar dute eta azkenek kaudimen ekonomikoa, finantziarioa eta teknikoa.

ABEEen kasuan, enpresa bakoitzak aurkeztu beharrekoez gain, 69. artikuluan datorren adierazpena aurkeztu behar dute, hau da, horrekin konpromisoa hartzen duen aldi baterako enpresa eratzeko kontratuaren esleipendun suertatuz gero.

Enpresaburuak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, enpresa horietako bakoitzak erantukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, kasu horietan eskatzen den informazioa jasota, DEUC inprimakiaren arabera eta Legearen 75. artikuluarekin bat etorriz. 75. artikuluaren 2. paragrafoan datorren konpromisoa 140.3 artikuluaren hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz aurkeztu behar da.

